

ANDONI EGAÑA/MAIALEN LUJANBIO -*HUSTUARI HITZAK*-
José Manuel Ballester *EN TORNO A GUERNICA*, 2009/2020
Guggenheim Bilbao Museoa, 2020.12.21

MAIALEN L

Arratsalde on ta ongi etorri
infinitoranzko soaz
nonbait zaudeten entzuleekin
egin nahi genduke jolas
gu hemen erdiminez
ta zuek streamingez
ta akaso txalo joaz
gaur irudiak, doinu ta hitzak
harian barrena doaz

gaur irudiak, doinu ta hitzak
harian barrena doaz

ANDONI E

Arratsaldeon neronek ere
gatoz bertsoak grinez
oraintxe sakon jardun gintezke
hurrena modu arinez
nahiz ez dugun begiko
gaur entzuleekiko
harremana streamingez
ia egoera gaintitzen dugun
saio bikain bat eginez

ia egoera gaintitzen dugun
saio bikain bat eginez

MAIALEN L

Zer bilakatzen dira bertsoak
auskalo nora heltzean
beltzean zuri ez dira egiten
eta ez zuri beltzean
Hau soilik da ahotsa
ta oihartzunaren hotsa
amildegian ertzean
hau da artegintza efimeroa
titaniozko etxean

hau da artegintza efimeroa
titaniozko etxean

ANDONI E

Bertsolaria artisaua da
hori badakigu ongi
baina sekula ere etzaigu
etsipenean erori
Maialen ta Egañak
igual bertso bikainak
joan litezke bat edo bi
guk e tarteka gainditzen dugu
efimerotasun hori

guk e tarteka gainditzen dugu
efimerotasun hori

MAIALEN L

Pentsa akaso zenbait belarri
izango ditugula zai
zer kontatuko, zer kantatuko
zer gogoeta, zer paisai
baina bertsolaritza
da doinua ta hitza
beti behetik gora, ai!
ze goitik behera ez baitakigu
ta gainera ez dugu nahi

ze goitik behera ez baitakigu
ta gainera ez dugu nahi

ANDONI E

Halaxe da, bai, behetikan gora
nahi genuke beti jardun
bertsotan hoi da usadioa
ez al da bistan ezagun
behetikan gora libre
hona bi adiskide
Gernika koadroa lagun
orain atzera begiratuta
aurrera egin dezagun

orain atzera begiratuta
aurrera egin dezagun

MAIALEN L

Gure atzean hor dugulako
artelan bat karratua
grisa, zuria ta beltza dena
gogoetan markatua
mila esanahi izan duena
zehatz ala abstraktua
iraganaren orogairri ta
gaurraren erretratua

ANDONI E

Begitan daukat baten oina ta
besteren baten eskua
gogoan daukat
haurra ma(ga)lean
zedukan andre prestua
lehen guk Gernika ezautu gendun
kixkalia ta haustua
lehenengo aldiz ikusi dugu
hemen Gernika hustua

MAIALEN L

Hustua baina lehengo esanahi
ta oihartzunaren jabe
hustasun eta desolazio
ezker ta eskuin, goi ta behe
garai bateko irudi hori
gaur antzeko da hala re
zer txiki batek bonbardeatu
gaitu hotsik sortu gabe

ANDONI E

Falta zaizkigu emakumezko
gizonezko ta abarrak
falta zaizkigu uxu zauritu
ta zezenaren adarrak
falta zaizkigu bonba haien pean
galdu ziren gernikarrak
garai haietan gehien gehienak

euskaldun elebakarrak

MAIALEN L

Gernikarrak, bai, bertakoak ta
egin zitunak euskerak
azoka egun batean hango
kaleko gorak ta beherak
gehien bat mina oroitazten
dit koadro honen tankerak
eta hizkuntzaz eta harago
zauri sendatu gabe bat

ANDONI E

Oraindik ere sendatu gabe
daukagu orduko mina
Pablo Picassok margotu zuen
gure koadro hau, jakina
Gernikan dago izan litekeen
kontraesanik haundina
nun eta Reina Sofian dago
Republikak eragina

MAIALEN L

Hortan, Andoni, hain eztabaida
luzean sartuko gera
Reina Sofia ta Republika
kontraesana da bera
Francok bidali hegazkin haiek
lehen Gernika barnera
ta Espainiako hiriburuan
oain pakearen bandera

ANDONI E

Picassok igual egingo zuen
zerbait salatu asmotan
iya ehun urte pasa dira ta
inortxo ez gaude lotan
Guernicak hemen egon behar luke
pentsatu izan det askotan
eta ez soilik gure etxeko
hormetan ta pasillotan

MAIALEN L

Nola ikono bilakatu den
beti esanahiz hain gizen
hori da herri sarraskitu bat
niri hala iruditzen
halere ez da soilik *Guernica*
nahiz gaur gu hortaz gabiltzen
koadro honek egun izan ditzake
beste hamaika hiri izen

ANDONI E

Ta hotsez ere antzeko dira
iragan ta irudipen
horrexegatik gogoeta bat
lehen bertsoen ondoren
herri bat gera denok batuko
gaitun norbait behar da hemen
ia lurrean den kriseilu hau
eskutan norik hartzen duen

MAIALEN L

Guernicaren irudi
zaharretik kanpo
zezenak ta pertsonak
ez ditu bertako
kanbiatuta dauzka
hola ta halako
irudiera aldatu bat
testuinguruz kanpo
irentsiko ditugu
zenbat horrelako

irentsiko ditugu
zenbat horrelako

ANDONI E

Atzean Ballesterrek
sortu dun eszena
apurtuko zizkigun
hamaika eskema
zerbait izkutatu du
hori da problema
zerbait azaldu baina
ez den den den dena
komunikabideek
egiten dutena

komunikabideek
egiten dutena

MAIALEN L

Ustez informazio
finarekin zita
erdia erakutsi
erdi ikusita
erdia ezkutatu
gordean itxita
ta gu erdi errezeloz
ta erdi sinetsita
pentsuz beteta eta
ezin irentsita

pentsuz beteta eta
ezin irentsita

ANDONI E

Lehen eltze zena orain
da eltze espresa
ta horrenbeste pentsu
sortzen dun estresa
zer falta da, zer dago
askotan sorpresa
batzun helduleku da
besteen ihesa
mundu hau ulertzea
ez dago erreza

mundu hau ulertzea

ez dago erreza

MAIALEN L

Ta esplikatzen jo ta ke
aritzen zaizkigu
esaldi batentzako
eufemismo hiru
ta ezin kokatuta
gabiltza beti gu
espiritu kritikoz
hori dagokigu
baina non begiratu
ere ez dakigu

baina non begiratu
ere ez dakigu

ANDONI E

Nahiz ta luzatzen degun
begirada bizi
sastraka ta lorea
gaur zeinek berezi
batzuntzat premi dena
bestentzat kutizi
gaurkoan lekzioa
garbi dago kasi
ez dagona ikusten
behar dugu ikasi

ez dagona ikusten
behar dugu ikasi

MAIALEN L

Dagona ta ez dagona
dena lurrundua
pandemia garaian
are ilundua
galde egingo dizut
ta piztu burua
bizitza hontan luzago
zera egondua
zuri-beltza ikusten

al dezun mundua

zuri-beltza ikusten
al dezun mundua

ANDONI E

Zuri-beltza degu maiz
munduko kodea
bere baitan tristura
asko du gordea
baina hartu ezker
koadroan moldea
ezpataren gainetik
hor dago lorea
ta neri gustatzen zait
ez dun kolorea

ta neri gustatzen zait
ez dun kolorea

MAIALEN L

Metafora ederrak
koadroaren funtsak
laguntzen die zure
bertsoen hizkuntzak
sentimentu ilunak
nere barne kutzak
gure helburu haundiak
egun erdi hutsak
zauri larriagoak
labana kamutsak

zauri larriagoak
labana kamutsak

ANDONI E

Holakorik ez nuen
askorik itxaro
labanaren ahoa
neurtzera igaro
kamutsak min handio
egia zeharo

gu geu ere zuri-beltz
ari gera, klaro
benga, Maialen, hasi
pixkat alaiago

benga, Maialen, hasi
pixkat alaiago

MAIALEN L
Maialen alaiago
hasi zaite, benga
apartean utzita
zoritxar zerrenda
nere aldartea azaldu
beharra nuen ba
ze gaur Santo Tomas dala
nor akordatzen da

gaur Santo Tomas dala
nor akordatzen da

ANDONI E
Behin esan behar zenun
ta egia hau re
hilak hogeita bata
gaur du parez pare
Guggenheimen gabiltza
koadro baten jabe
baina eguna joan da
txistorrarik gabe

baina eguna joan da
txistorrarik gabe

MAIALEN L
Txistorrarik ez dago
ai, ez al zenekin
ta gu triste bagaude
zerriak ez berdin
gainera Guggenheimen
eta kantuz egin
hogeta bat garrenge

mendeko blusekin

hogeta bat garrengo
mendeko blusekin

ANDONI E

Santamasak ospatu
ditut mila aldiz
bertsolarien kabi
izan dira egiz
nun eta Guggenheimen
biok hitz eta pitz
ai, Lujanbio, Txirrita
berpiztuko balitz!

ai, Lujanbio, Txirrita
berpiztuko balitz!

MAIALEN L

Nahiago ez ikusi
hura parez pare
Guggenheimen gaudela
gutxinez bazpare
arituko litzake
ez da nobedade
nahiz streaminga zer dan
entenditu gabe

nahiz streaminga zer dan
entenditu gabe

ANDONI E

Gaur egungoak dira
bruxa ta abarkak
imajinatu hemen
Txirritaren prakak
Txirritan ateraldi
Txirritan adarkak
makulutzat hartuta
mikrofono hankak

makulutzat hartuta

mikrofono hankak

MAIALEN L

Brusarekin jaztea
ez da hain grabea
garaikidetasuna
hemengo habea
Txirrita Guggenheimen
nolako parea
hura zen bera zenan
lotsarik gabea

hura zen bera zenan
lotsarik gabea

ANDONI E

Gorputzez haundi eta
izakeraz fuerte
garai hartako plazak
bertsozalez bete
nahiz eta joan diren
larogei bat urte
ona zan ta hemen e
asmatuko luke

ona zan ta hemen e
asmatuko luke

MAIALEN L

Lotsarik ez izanda
errez da asmatzen
nonahi ari gintezke
bertsoak kantatzen
lehena ta oraina
bat egin daitezen
Gernika ere feri
eguna izan zen

Gernika ere feri
eguna izan zen

ANDONI E

Koinzidentzi guztiak
azkenik ageri
haririk galdu gabe
honi edo zeri
ene bertsozaleak
kulpak bota neri
nik nahastu baititut
Txirrita ta Gehry

nik nahastu baititut
Txirrita ta Gehry

M Gaur gure entzuleak palomitak jaten
A ari direla ez al du ematen
M ta zer moduz gabiltzan ez dute esaten
A hura etzanda dago sofa ziztrin baten

A Eta bestea berriz sukaldean ari
M zeharka begiratuz bertso saioari
A ez dagoenai ari baigera kantari
M hortako jarri dute horrenbeste argi

M Guggenheimen baikaude ta hau ez da broma
A badauka ospea ta badauka sona
M mundu guztian dago gaur Bilbon dagona
A bertsoa hemen ere txarra edo ona

A Hemen gaude gu biok museo batian
M eta Kandinsky dago ondoko atian
A gainera txakurtxo bat sarrera partian
M zaunkarik ez du egiten ta utzi pakian

M Gero arte pixka bat goazen ikustera
A Kandinsky zein dan ziur ez dakit, ospera!
M marrak ta koloreak gora eta behera
A gu ere horrelaxe ilustratzen gera

A Batetik “Kandisky ta Modrian” bestian
M denetik badakigu esaten hastian
A zaila da harrapatzen gu geu ezustian
M ikusgai daude baina prezio garestian

M Gure bertsoak berriz merke ta airera
A nere ustean nahiko egoki ai gera
M Ballesterren obra da nere arabera
A agur bikain batekin eman bukaera

MAIALEN L

Guggenheimeko gela batean
gaur bi bertsolari prestu
arte obra batek esanahi bat ta
esanahi itxia ez du
guk abiatu egin dugu ta
ondorena zuen esku

ANDONI E

Eskerrik asko; agur, entzule
aritu gera lanian
José Manuelek deitu zigun ta
bi artesaren planian
horrelakoak hotz xamar edo
irteteia gehienian
bukatu eta igual oraintxe
gaude geure onenian
plaza ez baita zeharo plaza
entzuleik ez dagonian